2017-X-09
Número **534.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela.eus

astekaria

# EDITORIALA

## Demokraziaren alde eta errepresioaren kontra

**ELA herrien askatasunaren eta nazioarteko elkartasunaren alde dago; horregatik sostengatzen dugu herri katalanari bere estatus politikoa erabakitzeko zor zaion eskubidea, Espainiar Estatuaren babesa izan ala ez. Gainera, ELAk pozez ikusten du erakunde katalanek, behin gatazka aldebiko harremanekin konpontzeko saio guztiak agorturik, herritarren aldarria bere egin eta aldebakarreko bidetik jotzea erabaki izana, herriari hitza emateko.**

**Herri katalana burujabea da; horregatik urriaren 1eko erreferenduma egitea eta politikoki loteslea izatea babestu genuen. Izan ere, urriaren 1eko erreferenduma demokrazia kontua izan zen. Herriari hitza eman eta errespetatzea horixe da: demokrazia. Jakina zen Katalunia salbuespen egoeran aurkitzen zela. Aurreko asteetan ere errepresioa izan da estatuaren erantzuna, baina galdeketaren egunean urrats bat aurrerago joan zen Gobernu espainiarra. Estatu espainiarrak, demokraziari estatu kolpea eman dio, oso larria izan zen egun horretan gertatutakoa. Irudiek islatzen dituzten gertakariek frankismo garaietara garamatzate.**

**Irudi gogorrak eta lotsagarriak ikusi genituen, bere burua demokratatzat duen edonor asaldatzeko modukoak. Modu baketsu batean bozkatzeko eskubidea egikaritu nahi zuten herritarren kontra Polizia Nazionala eta Guardia Zibilaren oldarraldia ikaragarria izan zen, erabat desproportzionatua eta injustifikatua. Zaurituei gure elkartasuna adierazi eta azkar osatzea opa diegu.**

**Herri katalanak lezio handia eman du; lezio handia eman digu. Arrazoiaren indarra duen herri antolatu eta mobilizatua; gertuago sekula egon izan ez diren instituzioak. Miresgarria da, salbuespen egoeran egonda, Kataluniako herritarrek izan duten jarrera. Kataluniak bere bideari jarraitu behar dio. Eta bide horretan ELAren babesa izango du.**

#EmanBostekoa
Garaipenari!

### ELAk bere elkartasuna adierazi nahi dio Kataluniako gizarteari; Estatuaren errepresioak ez du geldituko antolatuta dagoen herri bat

# KATALUNIAREKIN




Urriaren 1ean, gizartearen gehiengoarekin hartutako konpromisoari jarraiki, Kataluniak bere estatus politikoaren inguruko galdeketa egin zuen. Oso baldintza gogorretan egin ere. Espainiar Estatuaren oldarraldia basatia izan zen; ehunka izan ziren Katalunia osoan zaurituak. Zauritutakoak eskuan botopaper bat zuten lagunak dira, soilik euren etorkizunaz libre eta demokratikoki bozkatu nahi zuten pertsonak.

ELAko idazkari nagusiak, Adolfo Muñoz *Txikik*, Kataluniako herriari bere babesa adierazteaz gain, gogor salatu nahi izan zuen Estatuaren bortizkeria. "Urriaren 1ean Katalunian ikusi genituen irudiak Espainiar nazionalismoaren ispilu dira. Estatuak ez du errepresioa beste irudirik ikusten. Ezinezkoa da erabakitzeko eskubidea adostea Francoren oinordekoaren moduan aritzen direnekin. Ezinezkoa da edozein esparrutan PP sostengatzea, errepresioa eta ustelkeria babesten dituen alderdia".

ELAren idazkari nagusiaren ustez, Estatuaren errepresioak ez du geldituko antolatuta dagoen herri bat. "Kataluniako erakundeek erakutsi duten ausardia politikoaren aurrean txalotu besterik ezin dugu egin. Emozioz beteriko orrialdea idazten ari da Katalunia. Galdeketaren aurretik Kataluniako agintari nagusiekin elkartzeko aukera izan genuen, eta aurrez aurre argi adierazi genien gure babes osoa zutela. Pozgarria da ikustea nola bertako agintariek hartutako konpromisoak betetzen ari diren, eta nola testuinguru zailenetan ere izugarrizko ausardia erakusten ari diren".

### PP-REKIN EZIN DA AKORDIORIK LORTU

Katalunian gertatzen ari dena ikusita, Muñozen ustez onartezina da inolako euskal alderdik PP babestea. "Onartezina da oraindik ere Urkullu lehendakariak esatea PPrekin akordioak bilatzen jarraitu beharra dagoela. Mundu guztiak ikusi ahal izan du zein den Espainiako estatuko eskaintza: errepresio gogorra erabakitzeko eskubidearen aurka; ez dute inoiz eskubide hori onartuko, ez Kataluniari, ez Euskal Herrian".

> *"ELA defiende la libertad de los pueblos y la solidaridad internacional; apoyamos el derecho del pueblo catalán a decidir sobre su estatus político. Agotados todos los intentos de abordar el conflicto de manera bilateral, las instituciones catalanas, haciendo suyo el clamor popular, han decidido avanzar de manera unilateral para que el pueblo decida. Ese es el camino"*




## LAS Y LOS TRABAJADORES, CON CATALUÑA

Los sindicatos ELA, LAB, ESK, STEILAS, HIRU, EHNE y Etxalde convocaron diferentes actos el martes 3 de octubre en defensa del derecho de Cataluña a elegir su futuro. Además, las miles de personas que participaron en los actos convocados denunciaron la brutal represión del Estado Español contra millones de personas que el pasado 1 de octubre pretendían algo tan básico en democracia como poder votar.

A la mañana se realizaron concentraciones en los centros de trabajo; además al mediodía hubo concentraciones ante los Ayuntamientos de Bilbao, Donostia, Gasteiz e Iruñea. Por su parte, a la tarde multitudinarias manifestaciones recorrieron las principales calles de las capitales de Hego Euskal Herria.

En el comunicado que se leyó tras las movilizaciones, los sindicatos convocantes aplaudieron la lección que el 1 de octubre dio el pueblo de Cataluña. "Es admirable, pese a estar en una situación de excepción, la actitud mostrada por la ciudadanía. Lo decían en las movilizaciones previas: votaremos y tanto el número de personas que acudirá a votar como el de respuestas afirmativas será destacable. Así fue. No hay represión que detenga el camino que les lleva a la soberanía, tienen plena legitimidad, tras los resultados del referéndum para continuar adelante".



## ELAk EAEko fiskalitatearen inguruan aurkeztu berri duen txostenak agerian uzten du azken urteetan injustizia fiskala areagotu egin dela

# ZERGA BILKETA: GUTXI ETA BALDAR




Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Ogasun arduradunek udara aurretik iragarri zutenez "udararen ostean" hiru herrialdeetako arau fiskalen inguruko erreformak aurkeztuko zituzten; helburua aldaketa horiek 2018ko urtarrilaren lehenean jartzea litzateke. Testuinguru honetan, erreforma hori publikoki aurkeztearen zain, ELAk Euskal Autonomia Erkidegoaren fiskalitatea aztertzen duen txostena aurkeztu zuen urriaren 5ean.

Eta ondorioak ez dira pozteko modukoak. ELAren gizarte politiken arduradun Mikel Novalek nabarmentzen duenez, "Euskal Autonomia Erkidegoan, zerga ereduari dagokionez, gutxi eta baldar biltzen da. Gutxi biltzen da presio fiskala Europar Batasunaren azken postuetan kokatzen delako; presio fiskala Europar Batasunaren bataz-bestekoa balitz urtean 5.052,8 milioi euro gehiago bilduko ziren. Eta gutxi biltzen da ere iruzur fiskala oso handia delako. Sozietateen Gaineko zergan gertatzen dena ikusi besterik ez dago: sozietateen erdiak eta gehiagok galerak aitortzen dituzte, eta ordaintzen duten enpresa eta sozietateen %78,1ak, galerak edota 6.000 eurotik beherako etekinak".

"Baina gutxi biltzeaz gain –jarraitzen du– baldar biltzen da. Azken urteetan injustizia fiskala areagotu egin da. Batetik, zuzeneko zergetan lan-errentei askoz karga handiagoa leporatzen zaielako enpresa- eta kapital-errentei baino; bestetik, aldea urtez urte handiagoa delako. EAEn lan-errentek ordaintzen dituzten zergak 2007tik hona %13,8 hazi dira; enpresa- eta kapital-errentenak, berriz, %44,3 erori dira. Deigarria da Sozietateen Zergan gertatu den jaitsiera: 2007an 2.034 milioi bildu ziren; 2016an, 1.002 milioi. Gurean lan-errentek aitortutako batez besteko sarrerak 26.509 euro dira, enpresa- eta lanbide-jarduerak dituztenen ia bikoitza (13.634 euro). Agerikoa da bidegabekeria".

### FISKALITATEAZ EZTABAIDATU NAHI DUGU

ELAko idazkari nagusiak, Adolfo Muñozek, gai honen inguruan eztabaidatzearen garrantzia azpimarratu nahi izan zuen. "Agintari politikoek ez dute fiskalitateaz hitz egin nahi. Urkullu lehendakariak berak esan berri du fiskalitateari buruzko eztabaida publikoa kaltegarria izango litzatekeela. Eztabaida ezkutatu nahi dute. ELA ez dute horretan bidelagun izango. Guk fiskalitateaz hitz egin nahi dugu eta hitz egingo dugu".

Erreforma oraindik publikoki aurkeztu ez den arren, Muñozek argi du bertatik ezin dugula gauza on askorik espero. "EAJko hainbat arduradun enpresek zergetan ordaintzen duten kopurua jaistearen alde agertu dira publikoki, eta horretarako Ameriketako Estatu Batuetako presidente Donald Trumpek erabiltzen dituen argudio berdintsuak erabili dituzte. Gezur hutsa da esaten dutena, gizartearen kalterako izango den politika fiskala defendatu besterik ez dute egin nahi, betiere, patronalaren interesi begira".

*"Los argumentos que utilizan algunos dirigentes políticos vascos para favorecer una bajada de impuestos a los empresarios son similares a los de Donald Trump. Son una falacia que solo pretenden justificar una política fiscal antisocial y al servicio de los intereses de la patronal. Se recauda poco y mal"*

## SE RECAUDA POCO Y MAL. ¿POR QUÉ?

- Se recauda más por impuestos indirectos (los que se pagan con independencia del nivel de renta) que por los impuestos directos (los que gravan según el nivel de ingresos o los beneficios).
- La injusticia fiscal se ha agravado en los últimos años. No solo es que en los impuestos directos se grava mucho más a las rentas de trabajo que a las empresariales y del capital, sino que las diferencias crecen año a año. En la CAPV los impuestos pagados por las rentas de trabajo han crecido un 13,8% desde 2007 mientras que los que pagan las rentas empresariales y del capital han caído un 44,3%. Llama la atención la caída de la recaudación procedente del Impuesto sobre Sociedades, que ha pasado de 2.034 millones en 2007 a 1.002 en 2016.
- Las rentas de trabajo suponen el 92,2% de la renta declarada en el IRPF. La renta media declarada en este impuesto por las rentas de trabajo es de 26.509 euros, prácticamente el doble de lo que declaran quienes tienen actividades empresariales o profesionales (13.634 euros). Las diferencias se han incrementado en los últimos años.
- El 78,1% de las empresas declaran en el Impuesto sobre Sociedades que tienen pérdidas o beneficios inferiores a 6.000 euros al año. Es una muestra más del enorme fraude fiscal existente en las rentas no salariales.
- El tipo efectivo del Impuesto sobre Sociedades (es decir, qué parte de los beneficios declarados va a pagar este impuesto) es del 16,2%, muy inferior al tipo nominal. Las empresas que tributan según la normativa vasca tienen un tipo efectivo inferior al de las empresas que tributan con la normativa estatal.

## Ambos sindicatos han impugnado el I Acuerdo Marco de Hostelería de la CAPV

# "CCOO Y UGT QUIEREN BAJAR HASTA UN 50% LOS SALARIOS DE HOSTELERÍA"




CCOO y UGT han impugnado el I Acuerdo Marco de Hostelería de la Comunidad Autónoma Vasca. Maricruz Elkoro, secretaria general de ELA-Zerbitzuak, destaca la gravedad de esta decisión. "Por medio de este acuerdo conseguimos dar prioridad a la aplicación de los convenios colectivos de aquí a las plantillas de Hostelería de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa, así como proteger las condiciones de trabajo de los recortes que pudieran venir de Madrid. En el caso de que prospere dicha impugnación las consecuencias serán gravísimas para las y los trabajadores del sector. En determinados casos peligraría el 50% de su salario, 8.200 euros menos al año, y 50 horas más de jornada".

Elcoro denuncia la apuesta de estos sindicatos –CCOO y UGT– por la Estatalización. "El acuerdo lo firmamos ELA y LAB, que ostentamos una representación del 77,48%; CCOO y UGT pretenden apropiarse de una representación que no les han dado los trabajadores y las trabajadoras de Euskal Herria para imponer unas condiciones de otro ámbito".

"El objetivo de esos dos sindicatos españoles es claro: monopolizar la representación sindical, sin importarles las condiciones laborales de los trabajadores y las trabajadoras".



**Xabi Irastorza recalca que la última propuesta del Departamento de Educación en la mesa negociadora sigue siendo muy escasa, por lo que continúan las movilizaciones previstas**

# "LA PROPUESTA DEL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN SIGUE SIENDO INSUFICIENTE"



Ha comenzado un nuevo curso escolar. Un curso en el que ELA volverá a mostrar su malestar con la grave situación del sector de la enseñanza. Para ello se han organizado durante estos próximos meses numerosas movilizaciones, incluida una huelga en toda la educación pública para el 12 diciembre.

**-¿Qué valoración haces de la reunión de la mesa negociadora de la enseñanza pública de la CAPV del 27 de septiembre?**

-La propuesta presentada es insuficiente. Las reivindicaciones sindicales respecto a la recuperación del poder adquisitivo, la no penalización de bajas y facilitar las jubilaciones no tuvieron ninguna respuesta por parte del ejecutivo. Educación propone una OPE de 5.000 plazas para la legislatura 2016-2020; 3.100 plazas para cubrir las vacantes por jubilaciones y 1.900 para reducir la alta temporalidad existente.

En el 2017 ya se realizó una OPE para 740 plazas, por lo que entre 2018 y 2020 la convocatoria cubriría 4.260 plazas. Teniendo en cuenta que en la enseñanza pública hay 9.600 docentes con contrato temporal (38%) esta propuesta situaría la tasa de temporalidad en el 24,9%. Es decir, quedarían sin estabilizar 6.200 plazas de las necesarias para reducir la temporalidad al 6%.

Por otra parte, existen 1.800 puestos de trabajo menos debido a que el incremento de matriculación no se ha visto correspondido con la creación de nuevas aulas. Ante esto el gobierno planteó el incremento de plantillas únicamente en 60 plazas. Así se mantendrá el incremento de un 10% en el ratio de alumnado por aula, con los problemas que ello supone.

La aportación más significativa, aunque parcial, fue que las sustituciones en la Enseñanza Primaria se harán desde el primer día. No así en Secundaria. No obstante, es este punto ha quedado abierto a la negociación en función de criterios pedagógicos y organizativos.

**-La consejera Cristina Uriarte no se cansa de repetir que no hay motivos para movilizarse...**

-Al parecer son nuestras acciones las que perjudican la enseñanza pública y no las políticas del Gobierno Vasco, no el hecho de que mientras la matriculación ha crecido en 27.116 alumnas y alumnos en los últimos 9 años se hayan generado sólo 661 nuevas aulas, 894 menos que las necesarias; y que en consecuencia, el alumnado por aula haya aumentado un 9,1% de media. Para Uriarte no repercute negativamente que haya 2.000 puestos de trabajo menos que los necesarios, ni que hayan aumentado las cargas de trabajo, ni que sean insuficientes los medios para educar en equidad, igualdad, de manera inclusiva y haciendo un seguimiento personalizado.

Tampoco deben tener repercusión el empeoramiento de las condiciones de trabajo ni la falta de estabilidad. La temporalidad es alarmante: 38% en el profesorado, 41% en el personal de Haurreskolak, 58% en Educación Especial, 64% en Cocina y Limpieza... Para ella no es problemático que 2 ó 3 cocineras o cocineros tengan que dar de comer a más de 300 escolares. Los problemas comienzan cuando deciden movilizarse. Al parecer, no hacer sustituciones o hacerlas pasada la semana no perjudica el proceso educativo.

Para el Gobierno Vasco destinar en 2017 162 millones de euros menos a educación que en 2009 o invertir en educación de año en año cada vez menor proporción de nuestra riqueza no perjudica el sistema educativo.

**-También dice Uriarte que muchas de las reivindicaciones de ELA no son de su competencia.**

-Lo de esta Consejera es un quiero y no puedo. Es increíble oírle decir qué materias están en su mano y, por tanto son susceptibles de negociación, y cuales no están es su mano y. por tanto, no son negociables. Dice que no está en su mano aumentar las plantillas recortadas, recuperar el poder adquisitivo (-15%, desde el 2009 una pérdida de más de 35.000 euros por persona en muchos casos) o llevar la inversión en educación a la media europea. Dice que el Gobierno Vasco estar supeditado a las directrices del gobierno español.

¿Dónde queda el autogobierno si las inversiones en necesidades básicas como educación dependen del estado español o están limitados por él? ¿Dónde quedan las competencias exclusivas? ¿Para qué queremos un Departamento de Educación o un Gobierno Vasco? ¿Por qué no dice Uriarte que el presupuesto de 2017, el límite de déficit y el techo de gasto hasta 2020 los acordaron el PNV y el Gobierno Vasco con el Gobierno de España y que seguramente harán lo mismo para 2018?

**-La culpa, siempre de Madrid...**

Acordar todo eso y decir que estamos limitadas por Madrid es tomar por estúpida a la ciudadanía vasca o hacer un ejercicio de cinismo inaceptable.

¿Tenemos que recordar a la consejera de Educación que, inmersos en las negociaciones de los presupuestos, el PNV acordó con el Gobierno de España limitar las plantillas de los servicios públicos, así como limitar las tasas de reposición de las vacantes creadas?

Todo esto evidencia que la educación no es una prioridad para el Gobierno Vasco. Cada vez se destina menos a Educación, mientras el pago de la deuda y el rescate bancario han acaparado 953 millones de euros más. Sin olvidar que para la construcción del TAV han adelantado 2.289 millones de euros desde 2009. Si se destinara a Educación lo que ha ido a parar a los bancos o lo invertido en el TAV estaríamos en niveles de inversión en Educación comparables con la media europea, incluso superiores.

**-A partir de ahora, ¿qué?**

-No nos queda otro remedio que continuar con las movilizaciones para presionar al gobierno hasta que presente una propuesta más acorde con las necesidades del sector.




## KALITATEZKO HEZKUNTZA SISTEMA PUBLIKO BATEN ALDE. GURE ALDARRIKAPENAK

- Hezkuntza inbertsioa handitzea (gutxienez Europar Batasuneko bataz-bestekoa, progresiboki %6ra iritsiz).
- Plantilak gutxienez 2.000 langiletan handitzeko beharra.
- Bataz-besteko ia %40ko behin-behinekotasuna (%38 irakasleetan, %41 Haurreskoletan, %58 Heziketa Berezian eta %63 Sukalde eta Garbiketan), %6ra murrizteko premia. Horretarako 6.000tik gora lanpostu egonkortuz kolektibo ezberdinetan.
- Ikasle-ratioak %10 murriztea.
- Hezkuntzako langileen eroste ahalmena berreskuratzea.
- Ordezkapenak lehen egunetik egitea.
- Bajak lehen egunetik bere osotasunean ordaintzea.
- Erretiroa erraztu eta laguntzeko neurriak berreskuratzea.
- LOMCE Euskal Herriko gure ikastetxeetatik ateratzea eta honen moldaketa hutsa den Heziberri bertan behera uztea.
- Hezkuntzaren merkantilizazioa alde batera uztea, egungo desorekak gaindituz hezkuntza garapen pertsonal eta sozial integralerako tresna izan dadin (kohesio soziala, integrazioa, aniztasuna, berdintasuna, hezkidetza oinarri).
- Ikasle euskaldun eleaniztunak sortuko dituen euskarazko murgiltze eredua garatzea.
- Balizko Hezkuntza legearen aurrean sindikatu, hezkuntza eragile eta herritarron parte hartzea eta iritzia aintzakotzat hartzea.



## LABURREAN / BREVES




### • Las instituciones deben implicarse para garantizar la continuidad del Grupo CEL

ELA exigió a la Administración Concursal la retirada del ERE de extinción para el Grupo CEL en la primera reunión sobre dicho expediente; la cita tuvo lugar el 28 de septiembre. El ERE afectaría a 211 de los 254 trabajadores/as del Grupo CEL. Además, ELA quiere denunciar la inacción de las instituciones en el logro de un proyecto que garantice la continuidad de todo el Grupo CEL.

Debemos recordar que el Gobierno Vasco poseía hasta mayo el 40% de las acciones de las empresas del grupo, y que diversas máquinas son propiedad de la Diputación Foral de Bizkaia. Pues bien, hasta la fecha, más allá de algunos pronunciamientos públicos, las instituciones no han concretado su plan para garantizar el futuro de CEL, ni se han comprometido a nada concreto.



### • Continúan las movilizaciones en las Residencias e Bizkaia

El lunes 2 de octubre las trabajadoras de las residencias de Bizkaia volvieron a salir a la calle en Bilbao para demostrar que no pararán hasta lograr un acuerdo que dignifique sus condiciones laborales. La manifestación salió de la Plaza Moyua y finalizó ante la Residencia Misericordia, perteneciente a la patronal Lares. En este sentido, ELA exige a las patronales LARES y ELBE que acepten el acuerdo alcanzado recientemente con GARES para la solución definitiva de este conflicto que se prolonga más de dos años.

### • Gipuzkoako zahar-etxeetako patronalek ez dute negoziatu nahi

Duela urtebete ELAk negoziazioak hasi zituen Gipuzkoako zahar-etxeetan, enpresa-hitzarmen kolektiboak berritzeko eta sektore-mailako hitzarmen kolektibo berri bat egiteko. ELAk sektorean duen ordezkari Iñigo Zubeldiak azpimarratzen duenez, gure sindikatuak etsigarritzat jotzen ditu patronalak orain arte egindako proposamenak.

"Ez dugu onartuko soldata-izoztea, ezta murrizketa sozialik ere, ez diegu uko egingo gogorrak eta luzeak izan diren borrokei esker lorturiko hobekuntzei, are gutxiago enpresa-hitzarmenei. Azken batean, enpresa-hitzarmen horiek dira gordeleku bakarra gure eskubideak behar bezala jasotzeko, gero benetan aplikatuko direlako bermea izan nahi badugu".

Zubeldiak oso argi ditu zeintzuk diren ELAren lehentasunak. "Gure hautua plantillak egonkorragoak eta handiagoak egitea da, horretarako lanpostu duinak sortuz. Soldata-igoerak, arrazoizko lan-egutegia (ordaindutako atsedenaldiekin), berariazko hobekuntzak txandetan eta zerbitzu bereziki nekagarrietan, konponbide bat 60 urte betetzera heltzear dagoen pertsonalarentzat... Horiek dira gure helburuak, eta horiek lortzeko beharrezkoak diren urratsak emango ditugu". ELAk ordezkaritzaren %61a du sektorean.

### • CCOO y UGT firman otro mal convenio estatal de la construcción

ELA considera que el nuevo convenio Estatal de la Construcción firmado por UGT y CCOO es una muy mala noticia para las y los trabajadores del sector: se volverá a perder poder adquisitivo, no se aporta garantía o cláusula alguna que evite a los empresarios no aplicar los convenios colectivos, no aborda ninguna cláusula que obligue a respetar la legislación laboral... ELA recalca que continuará en la lucha por dignificar las condiciones de trabajo de quienes trabajan en la construcción, es decir, justamente lo contrario que los sindicatos firmantes del Convenio Estatal.

CCOO y UGT demuestran una vez más su obsesión por empeorar las condiciones laborales, dando prioridad a los convenios estatales, manifiestamente peores. En definitiva, han vuelto a atacar los convenios de Euskal Herria con un acuerdo que refuerza la preferencia del ámbito estatal, aunque sus condiciones sean considerablemente peores.

# EL CAMBIO SOCIAL EN NAVARRA NECESITA MÁS PULSO POLÍTICO



Mitxel Lakuntza, Imanol Pascual y Ainhoa Fernández, responsables de ELA en Navarra, realizaron el 26 de septiembre una comparecencia pública para analizar las cuestiones que marcarán la agenda y las prioridades del sindicato en Navarra durante este curso.

Cuatro serán los ejes principales: trabajar por el cambio social, la defensa del autogobierno, la reversión de los recortes y la lucha contra la precariedad laboral.

En este sentido, Mitxel Lakuntza, responsable de ELA en Navarra, manifestó su preocupación por la falta de pulso político que el Gobierno mantiene en cuestiones económicas, sociales y autogobierno.

"Se trata de cuestiones centrales para que el cambio social se lleve a cabo; la distribución de la riqueza, la reversión de los recortes e incluso la defensa de las competencias fiscales ante el Estado".

"ELA es consciente –añadió– de las limitaciones y los márgenes que establece la legislación española, pero no puede dar por bueno que la obediencia se convierta en la única respuesta política. Esa posición es incompatible con el cambio".

"Este Gobierno debe actuar para redistribuir mejor la riqueza, lo que exige, en parte, una reforma fiscal y medidas contra el fraude".

**www.ela.eus / @ELAsindikatua / ELA-Facebook**

ELA EUSKAL SINDIKATUA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela.eus

**Franqueo concertado nº 08/207**